Bizkaiko Foru Aldundiaren ___/2017 **FORU DEKRETUA**, _________aren __(e)koa, maiatzaren 7ko 71/2013 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru-dekretu horren bidez, jarraibide orokorrak ezartzen dira Basoen Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoak (BKIPTak) eta Basoen Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Tekniko Sinpleak (BKIPT Sinpleak) idatzi, onartu, haien jarraipena egin eta berrikusteko.

Gizarteak gero eta gehiago eskatzen du basoen kudeaketa iraunkor bat, baso guztien antolamendua, kontserbazioa eta garapen iraunkorra dakartzana; hala erakutsi dute nazioarteko zenbait forok, hala nola: Nazio Batuen Erakundearen Batzarrak, 1997. urtean, eta Europar Batasunak, Helsinkiko Konferentzian (1993. urtean) eta Lisboako Konferentzian (1998. urtean).

Printzipio horiek, gure lurraldean, PEFC basoen arloko eskualdeko ziurtapen-sistema ezarriz gauzatu zen, 2004. urtean. Araudiari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoan honako foru-dekretu hauek eman dira Basoen Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoak idatzi, onartu, haien jarraipena egin eta berrikusteko jarraibide orokorrak arautzeko: maiatzaren 4ko 97/2004 Foru Dekretua, uztailaren 5eko 108/2005 Foru Dekretua eta maiatzaren 27ko 92/2008 Foru Dekretua (azken biek aldaketak sartu dituzte).

Azken urteetan, plangintza-tresnak PEFC basoen arloko ziurtapen-sistemaren zigiluaren pean antolatu eta ezarri dira, arlo publikoan. Arlo pribatuan, aldiz, gutxiago izan dira ziurtapen-sistema horri atxikitakoak. Beraz, beharrezkoa da basoen kudeaketa iraunkorra sustatzen jarraitzea arlo horretan, are gehiago kontuan hartzen badugu Bizkaiko

**DECRETO FORAL** de la Diputación Foral de Bizkaia /2017, de de ……………., de modificación del Decreto Foral 71/2013, de 7 de mayo, por el que se establecen las instrucciones generales para la redacción, aprobación, seguimiento y revisión de los Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible (PTGFS) y los Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible Simples (PTGFS Simples).

La gestión forestal sostenible que conlleva la ordenación, la conservación y el desarrollo sostenible de todos los bosques, es una demanda creciente de la sociedad, y así ha sido recogido en diferentes foros de ámbito internacional: “Asamblea de Naciones Unidas“ en 1997 y de la Unión Europea “Cumbre de Helsinki” en 1993 y la “Cumbre de Lisboa” en 1998.

La puesta en práctica de esos principios se concreta en nuestro territorio en la implantación del sistema de certificación forestal regional PEFC, allá por el año 2004. En concreto a nivel normativo en el Territorio Histórico de Bizkaia se vienen regulando las instrucciones generales para la redacción, aprobación, seguimiento y revisión de los Planes de Gestión Forestal Sostenible mediante el Decreto Foral 97/2004 de 4 de mayo y las modificaciones posteriores por los Decretos Forales 108/2005 de 5 de julio y el Decreto Foral 92/2008 de 27 de mayo.

Si bien en los últimos años en el ámbito público se han venido ordenando y estableciendo los instrumentos de planificación acogidos a la certificación forestal bajo el sello PEFC, en el ámbito privado el volumen de adhesiones ha sido menor, siendo necesario el continuar con el fomento de la gestión forestal sostenible en

Lurralde Historikoko baso-azaleraren % 75 jabetza pribatukoa dela.

este ámbito, máxime si se tiene en cuenta que el 75% de la superficie forestal del Territorio Histórico de Bizkaia es de propiedad privada.

Testuinguru horretan, atxikimendu-kopuru handiagoa lortzeko eta, ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoko azalera gehiago basoen kudeaketa iraunkorrarekin konprometituta egon dadin lortzeko, ezinbestekoa da–kudeaketa iraunkor hori egiaztatzeko beharrezkoa den zorroztasuna galdu gabe–prozedura sinplifikatuak ezartzea kudeaketa-planak idatzi, onartu, haien jarraipena egin eta berrikusteko. Planak, gainera, baso-ustiategiaren dimentsioari egokituak izan behar dira, bereziki, ustiategi txiki eta ertainen kasuan.

En este contexto y en aras a conseguir un incremento en el número de adhesiones y como consecuencia una mayor superficie a nivel del Territorio Histórico de Bizkaia, comprometida con una gestión forestal sostenible, es preciso que sin perder el rigor necesario para acreditar esta gestión sostenible, se establezcan procedimientos simplificados para la redacción, aprobación, seguimiento y revisión de los Planes de Gestión, acordes con la dimensión de la explotación forestal, y en concreto para aquellas explotaciones de mediana y pequeña escala.

Ildo horretan, 162001/2013 eta 162002/2013 UNE arauak onartu ondoren (lehenak 162001/2007 araua baliogabetu eta ordeztu zuen; bigarrenak, 162002-1/2007 eta 162002-2/2007 UNE arauak), maiatzaren 7ko 71/2013 Foru Dekretua onetsi zen, zeinaren bidez basoen kudeaketa iraunkorra manu horiekin bat arautu den Bizkaiko Lurralde Historikoan.

En este sentido tras la aprobación de las nuevas Norma UNE 162001/2013 y la UNE 162002/2013 que anulan y sustituyen a la Norma 162001/2007 la primera y a la norma UNE 162002-1/2007 y UNE 162002-2/2007 la segunda, se aprobó el Decreto Foral 71/2013, de 7 de mayo en el que se regula normativamente en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia la gestión forestal sostenible acorde con las citadas normas.

Foru-dekretu hori basoen kudeaketa iraunkorraren ezarpenean aplikatu ondoren, eta planak izapidetzeko administrazio-kudeaketa arintzearren, ikusi da beharrezkoa dela planen indarraldia aldatzea (5. artikuluan arautzen da gai hori), hain zuzen, indarraldia egokitu nahi da planetan aipatzen diren baso-espezieen txandetara.

De la aplicación del citado Decreto Foral en la implantación y establecimiento de la gestión forestal sostenible y con el objeto de que se optimice la gestión administrativa en su tramitación se ha detectado la necesidad de modificación de la vigencia de los citados planes regulada en el artículo 5, adecuando dicha vigencia a los turnos de las especies forestales a que hacen referencia los citados planes.

71/2013 Foru Dekretuaren aldaketa horri esker, batetik, indarraldia egokituko da plan horietan —basoen kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoetan nahiz basoen kudeaketa iraunkorrerako plan tekniko sinpleetan— arautzen diren espezieen txanda errealera, eta, bestetik, plan horiek onartzeko

Con la citada modificación del Decreto Foral se consigue por una parte adecuar el plazo de vigencia al turno real de las especies que se regulan tanto en los Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenibles PTGFS y Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible Simple PTGFS Simple y por otra simplificar la

administrazio-izapideak erraztuko dira, alferreko izapideak sortu gabe planak onartzeko aurkeztu dituzten pertsonei edo onartuta dauzkatenei.

tramitación administrativa de la aprobación de los planes, no generando trámites innecesarios a las personas que han presentado los citados planes para su aprobación o los tienen aprobados.

Foru-dekretu honetan jasotzen den aldaketa dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko baso arloko sektore-erakundeei galdetu zaie, bai eta Basalde PEFC Euskadi gestionatzeko elkarteari ere; eta guztiek adierazi dute ados daudela aldaketarekin.

En relación con la modificación recogida en este decreto han sido consultadas las organizaciones sectoriales del ámbito forestal del Territorio Histórico de Bizkaia, así como la entidad de certificación del País Vasco Basalde, habiendo mostrado dichas organizaciones conformidad con la citada modificación.

Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legeko 32. artikuluak eta hurrengoek eta Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauak –martxoaren 20ko 3/2007 Arauak aldatu zuen arau hori– xedatzen dutenaren arabera, administrazio publikoek mendi guztien antolamendua sustatuko dute, teknikoki zein ekonomikoki, modu iraunkorrean kudeatuak izan daitezen.

Conforme se establece en los artículos 32 y siguientes de la Ley 43/2003 de 21 de noviembre de Montes y en la Norma Foral 3/1994 de 2 de junio de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos, modificada por la Norma Foral 3/2007 de 20 de marzo, las administraciones públicas impulsarán técnicamente y económicamente la ordenación de todos los montes para su gestión de forma sostenible.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017 de 17 de enero por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, haren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira;

El presente Decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del

ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan, foru dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, "Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena".

Horregatik guztiagatik, eta kontuan izanik lurralde historiko honi zer eskumen ematen dizkion Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertoko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko 27/1983 Legeak basogintzaren alorrean, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 17. eta 64. artikuluek eman dizkidaten ahalmenez baliatuz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak proposatuta eta Foru Aldundiak 2017ko _______aren ___(e)ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

**XEDATZEN DUT**

**1. artikulua.- <u>Xedea</u>**

Foru-dekretu honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 7ko 71/2013 Foru Dekretua aldatzea. Foru-dekretu horren bidez, jarraibide orokorrak ezartzen dira Basoen Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoak (BKIPTak, aurrerantzean) eta Basoen Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Tekniko Sinpleak (BKIPT sinpleak, aurrerantzean) idatzi, onartu, haien jarraipena egin eta berrikusteko. Plan teknikoak baso-plangintzarako tresnak dira, honako arau hauetan jasotzen direnak: Mendiei buruzko Foru Arauan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko basoak artatu, hobetu eta garatzeko sustapen-neurrien araubidea ezartzen duen abenduaren 21eko 75/2015 Foru Dekretuan.

**2. artikulua.- <u>Maiatzaren 7ko 71/2013 Foru Dekretuaren 5. artikulua aldatzea.</u>**

género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. En este sentido, en su tramitación se incorpora el "Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género" al que hace referencia el artículo 2 del citado Decreto Foral.

Por todo ello, en virtud de las competencias atribuidas a este Territorio Histórico en materia forestal por la Ley 27/1983 de 25 de noviembre del Parlamento Vasco de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y asimismo en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 64 de la Norma Foral número 3/1987 de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia a propuesta del Departamento de Agricultura y previa deliberación de la Diputación Foral en su reunión de de de 2017

**DISPONGO**

**Artículo 1.- <u>Objeto</u>**

El presente Decreto Foral tiene por objeto modificar el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 71/2013, de 7 de mayo, por el que se establecen las instrucciones generales para la redacción, aprobación, seguimiento y revisión de los Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible (en adelante PTGFS) y los Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible Simples (en adelante PTGFS Simples). Los Planes Técnicos son instrumentos de planificación forestal contemplados en la Norma Foral de Montes y en el Decreto Foral 75/2015, de 19 de mayo, por el que se establece un régimen de medidas de fomento para la conservación, mejora y desarrollo de los bosques en el Territorio Histórico de Bizkaia y sus posteriores modificaciones.

**Artículo 2.- <u>Modificación del artículo 5 del Decreto Foral 71/2013 de 7 de mayo.</u>**

Aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 7ko 71/2013 Foru Dekretuaren 5. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«5. artikulua.- Indarraldia eta berrikuspena.

BKIPTen eta BKIPT sinpleen indarraldia eta berrikuspena.

1- Oro har, 20 urteko indarraldia izango dute BKIPTek eta BKIPT sinpleek. Indarraldia amaituta, BKIPTak eta BKIPT sinpleak luzatu ahal izango dira —aurretik berrikusten badira— hogei urteko aldietarako. BKIPTak eta BKIPT sinpleak berrikusteko prozedura plana onartzeko ezarritako bera izango da.

2- Interesdunek eskatuta, justifikatutako arrazoiengatik berrikusi ahal izango dira BKIPTak eta BKIPT sinpleak haien indarraldia amaitu aurretik.

3- BKIPTen eta BKIPT sinpleen indarraldia eten ahal izango da Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak BKIPTaren edo BKIPT sinplearen jarduketei lotutako ez-betetze larriak eta/edo jakinarazi gabekoak antzematen dituenean.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

**Lehena.** 5. artikuluaren 1. zenbakian ezarritakoa aplikatu beharrekoa izango da maiatzaren 4ko 97/2004 Foru Dekretuan, uztailaren 5eko 108/2005 Foru Dekretuan eta maiatzaren 27ko 92/2008 Foru Dekretuan xedatutakoa aplikatuz onetsi diren basoen kudeaketa iraunkorrerako plan tekniko guztiei eta basoen kudeaketa iraunkorrerako plan tekniko sinple guztiei.

## AZKEN XEDAPENA

**Lehena.** Iraunkortasuna eta Ingurune

El artículo 5 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 71/2013, de 7 de mayo queda redactado como sigue:

“Artículo 5.- Vigencia y revisión.

Vigencia y revisión de los PTGFS y de los PTGFS Simples.

1- Con carácter general, la vigencia de los PTGFS y de los PTGFS Simples será de 20 años. Una vez finalizado el período de vigencia, el PTGFS o el PTGFS Simple podrá ser prorrogado, previa revisión, por períodos de veinte años. El procedimiento para la aprobación de las revisiones de los PTGFS o de los PTGFS Simple será el mismo que el establecido para la aprobación del Plan.

2- A solicitud de las personas interesadas los PTGFS o PTGFS Simple se podrán revisar por causas justificadas antes de la expiración de su período de vigencia.

3- La vigencia de los PTGFS o de los PTGFS Simples podrá ser suspendida cuando el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural detecte incumplimientos graves y/o no comunicados relativos a las actuaciones contenidas en el PTGFS o PTGFS Simple.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Primera.-** Lo establecido en el artículo 5, punto 1 será de aplicación para todos los Planes Técnicos de Gestión Sostenible y Planes Técnicos de Gestión Sostenible S imples aprobados en aplicación de los siguientes Decretos Forales: Decreto Foral 97/2004, de 4 de mayo, Decreto Foral 108/2005, de 5 de julio y el Decreto Foral 92/2008, de 27 de mayo.

## DISPOSICION FINAL

**Primera.-** Se faculta a la diputada foral de

Naturala Zaintzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru-dekretu honetan xedatutakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren arauak eta egintza guztiak eman ditzan.

Sostenibilidad y Medio Natural para dictar las disposiciones y actos necesarios para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

**Bigarrena.-** Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

**Segunda.-** El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Bilbon emana, 2017ko ______aren __(e)(a)n.

Dado en Bilbao a de de 2017

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatua
La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

ELENA UNZUETA TORRE

UNAI REMENTERIA MAIZ